


UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2020/05/26) Hurrengo saioa: 2020/06/17)	“Herritmia” irratsaioa	Euskadi Irratirako grabatuko den programaren edukia zehazten aritu gara. Nabarmenduko diren blokeak hauek izango dira: Ondarea, Herriko ekoizleak eta produktuak, Udalean gaur egun eta etorkizunari begira ditugun erronkak eta herriko gertakari historiko edo bitxiak. Herriarekin lotura zuzena duten bi abesti ere aukeratu dira. Grabaketa ekainaren 2an izango da, eliz-atarian. Programaren antenaratzea uztailean edo abuztuan izango da.	Herritarrei adierazi irratsaioaren emisioa noiz izango den

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2020/06/03) Hurrengo saioa: (2020/06/24)	Udalekuak	Aurtengo udalekuak antolatzen hasi gara, beti ere Osasun sailaren eta Aldundiaren aholkuak jarraituz. Erabiliko diren irizpideak zehaztu dira: kopurua (gehienez 9 hurreko taldea); iraupena (hiru aste- ekainaren 29tik uztailearen 17ra); aukerak (asteka izena emateko aukera); ekintza mota (kanpo librean egin ahal izango direnak -kirola, keramika, baratza, musika, hurbileko natura arakatzea,-). Udalekuak ziurtasunez eta araudiak eskatzen dituen neurriak hartuta egingo dira.	- laz parte hartu zutenen artean sondeo bat egin. - Uda Itsason pasatzen duten gaztetxoek gurasoei galdetu.
	Irakurle taldearen solasaldia	Apirilaren 21ean egin behar zen solasaldia bertan behera gelditu zenez, data berria adostu da: ekainaren 16an egingo da, 19:30etatik 20:30etara.	- Herritarrei watsapez jakinarazi
	Auzolana	Hurrengo auzolanerako zeraginak zerrendatu dira: Etxe batzuetan seinaleak jarri, ibilbideetako ikurrak nabarmendu (zutabeari ikurraren kolorea emanaz), Altzigarragako iturria berreskuratu, Itsusturri ingurua eta Goiko plaza txukundu, herriko lorategiak apaindu,... Erabakia ez den arren, ekainaren 27ko data proposatu da aukera bezala.	Hurrengo batzordean gaia tratatzen jarraitu



LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena (2020/06/10) Hurrengo saioa: (2020/07/01)	Udaletxeko obraren lizitazioa	Datorren ostiralean, ekainaren 19an irekiko dira B sobreak (aurrekontua dutenak)	
	Parrilla Ostaturako	Plazako bizilagunekin bilera egin zen, eta momentuz parrila kanpoan jarri bada ere, parrila finko bat Ostatuaren sukaldetik, atzekaldeko paretan, jartzeko aukera aztertzeko beharra ikusi da, eraikineko obra aprobetxatuz	
	Natur ondarea berreskuratzeko proiektua	Terreno jabeak 0,40 € eskatzen du metro karratuko baina 0,30€ eskainiko zaio. Bestela inguruko beste terreno batzuen aukera landuko da. Alegiko Udal lursailean Haltzadia berreskuratzeko landaketa baimena eskatu behar zaio Ura ajentziari. Aranzaditik mapa prestatu behar dute inbaditzaileak identifikatu eta kentzeko. Kizkitzako pagadia ikstera etorriko dira laster kimatzeko teknikoarekin. Jakinaraziko zaigu	Horren arabera negoziatzen segi edo ondoko lursailera jo
	Udal aurrekontuen moldaketa	Konpondu beharreko baserri bideak ikusi dira Gañera enpresarekin, eta premia handiena ikusi zaien zatien aurrekontuak prestatuko ditu Haritzizabal-Kamiño bide zatia Orsa enpresak konponduko du, asfaltoarekini	